

PARTE HARTU ERABAKITZEKO

OOG-RAKO HAUTESKUNDEAK 2022



IGEENTZAKO GOMENDIOAK

IGEaren ORDEZKARIA IZENDATU

Gurasoen elkarteek eskubidea dugu pertsona bat zuzenean OOGko kide izendatzeko. Pertsona hori ez da ohiko hautaketa-prozesutik pasatzen. Ez baduzue, aldatu nahi baduzue edo agintaldia amaitu bada, orain da unea! Hori egiten ez baduzue, elkarteak ordezkapen zuzena galduko du Ordezkaritza Organo Gorenean.

Guraso-elkarteko Zuzendaritza Batzordeak proposatuko du ordezkaria. **Pertsona hori Batzordearekin zuzenean eta etengabe harremanetan egotea gomendatzen dizuegu.**

❗ GARRANTZITSUA: IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI ZUEN ORDEZKARIAREN IZENA AURKEZTU URRIAREN 19A BAINO LEHEN.

* Zure federazioak zuen ordezkaria izendatzeko eredu bat emango dizu.

BETE BEHARREKO POSTU HUTSEN KOPURUA EZAGUTU ETA HAUTAGAIK LORTU

Hautaketa-prozesu honetan bete beharreko gurasoen plaza hutsen kopuru osoa ezagutu behar dugu. Galdetu zuen ikastetxeko zuzendaritzari.

Hautagai-kopuruak postu hutsen kopurua baino handiagoa izan behar du. Horrela, baja bat gertatzen bada, baja hori bete dezaketen gurasoak izango ditugu, eta horrela bermatuko da familiei dagokien ordezkaritza beren ikastetxeko OOGn.

Guraso-elkarteen hautagaitza bat prestatzea gomendatzen dizuegu. Bilatu zuen elkartearekin eta ikastetxearen eguneroko funtzionamenduarekin lotura duten hautagaiak; horrela, familien ordezkari gisa, kontuan izan ahal izango dute haien iritzia OOGn/Eskola Kontseiluan erabakiak hartzeko orduan.

Ez dezagun ahaztu **OOGn ez dugula interes pertsonalik defendatzen, gure ikastetxeko familia baizik.**

❗ GARRANTZITSUA: HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA URRIAREN 19TIK 28RA BITARTEKOA DA.

FAMILIEI GURASO-ELKARTEAREN HAUTAGAITZAREN BERRI EMAN

Garrantzitsua da OOGrako hautagaiak lortzea, baina baita familiek hautagaiak ezagutzea. Horretarako, honako hauek egin ditzakezue:

- Kanpaina bat hasi zuen komunikazio-kanalen bidez: *WhatsApp*, *Facebook*, *Twitter*, mezu elektronikoa, ikastetxeko kartelak, etab.
- Eskatu zuen ikastetxeari guraso-elkarteen hautagaitza zabalitzeko, familiekin komunikatzeko dituen ohiko bideen bidez

BOZKETAK

Bi modutara eman daiteke botoa:

- Aurrez aurre.
- Postaz. Botoa posta arruntez edo mezularitzaz eman daiteke, botoa zentroan entregatuz edo zuen seme edo alabaren bidez. Zuen botoarekin batera, eskabide-orria eta boto-orria (zuen zentroak emandakoa) eta NANaren fotokopia aurkeztu beharko dituzue. Posta bidezko botoak hauteskunde-batzordearen esku egon behar du hauteskundeak egin aurreko egunean.

Bozketen datak: azaroaren 16etik 18ra (ikastetxean kontsultatu).

info+ ehige.eus

BIGE: 94 416 93 60

bige@bige.eus

BAIKARA: 943 32 72 08

baikara@baikara.eus

DENON ESKOLA: 945 25 61 62

info@denoneskola.eus

ehige

Euskal Herriko Ikasleen
Gurasoen Konfederazioa